SOZIOLOGIA

Jon ARRIZIBITA SALABERRI

ESKOLA JARRERA DESBIDERATUEN PREBENTZIOAREN AGENTE GISA

GBL 2016

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Gradu Bukaerako Lana

ESKOLA JARRERA DESBIDERATUEN PREBENTZIOAREN AGENTE GISA

Jon ARRIZIBITA SALABERRI

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

Ikaslea
Jon ARRIZIBITA SALABERRI

Izenburua
Eskola jarrera desbideratuen prebentzioaren agente gisa

Gradu
Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Ikastegia
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Zuzendaria
Lohitzune ZULOAGA LOJO

Saila
Soziologia Saila

Ikasturte akademikoa
2015/2016

Seihilekoa
Udaberria

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua, batez ere *1. Gaiaren aurkezpena eta ikuspegi teorikoa* atala garatzeko baliogarria izan zaigu. Izan ere, soziologia eta hezkuntza alorretan adituak diren autore desberdinen ekarpenak bildu eta kontrastatu egin dira lanaren ikuspegia zehazteko. Ondoren, ekarpen horietatik abiatuta, *3. Prebentzio proposamena: eskolan garatzeko prebentzio programa* atala garatua izan da.

Didaktika eta diziplinako moduluak, Iruñean delinkuentziaren prebentzioan lan egiten duten instituzio nagusien baliabideak aztertu eta horietan oinarrituta gure testuinguruan aplikagarria izatea espero den prebentzio programa baten proposamena egiteko bidea eman digu. Modulu hau, *3. Proposamena: eskolan garatzeko prebentzio programa* puntuan aurki dezakegu.

Halaber, Practicum moduluak, Nafarroan 14 urte baino gutxiagoko delinkuentziaren inguruan dagoen egoera ezagutzea ahalbidetu digu. Horrela, 14 urte baino gutxiagoko haurrak legearen aurrean duten egoera, eskola eta poliziaren arteko harremana eta eskolak haurren jarrera desegokiak prebenitzeko erabiltzen dituzten teknika eta prozesu nagusiak aztertu egin dira. Modulu hau, *2. Nafarroako egoera* puntuan zehar agertzen da, zeharki ere; *2.1 Jurisdicción de menores, 2.2 Eskola eta poliziaren arteko elkarlana* eta *2.3 Eskolen baliabideak* puntuetan.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Programas de Interveción”, “Jurisdicción de menores” eta “Conclusiones y cuestiones abiertas” atalak baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen duen arabera, Graduaren bukaeran hizkuntza koofizial bat ezagutzen duten ikasle elebidunek C1 maila ere izan behar dute erkidegoaren beste hizkuntzan, alegia, gure kasuan, euskaran. Hori dela eta, euskaraz hizkuntza gaitasuna erakusteko, hitzaurrea eta lanaren azken ondorioak gure hizkuntzan idatziko dira.

Laburpena

Eskola eta familia haurraren garapen kognitibo-emozional egokia lortzeko oinarrizko instituziotzat hartuz, prozesua zailtzen duten eta era zeharkatuan jarrera desbideratuak baita biolentoak ere, etorkizunean jarrera deliktiboetan deribatu daitezkeenak, sor ditzaketen aldagai eta alderdiak aztertu egin ziren. Instituzio hauek gure testuinguru soziokulturalean arazo honen prebentzioa aurrera eramaterako orduan eskuragarri dituzten baliabideak aztertu egin ziren, orain arte hartutako neurriak eraginkorrak baina nahikoak ez direla determinatuz. Aparteko arreta ipini egin zen Iruñeko kasuan Udaltzaingoaren eta hezkuntza instituzioek garatzen duten erlazioan, gure testuinguru espezifikoan aurrera eramaten diren jokabide eta esperientziak gertutik ezagutzeko helburuarekin. Baliabide hauen hobekuntzan laguntzeko asmoz, gure testuinguruan aplikagarria den prebentzio proposamena sortu egin zen.

Hitz gakoak: Eskola; familia; haurrak; jarrera desbideratuak; prebentzioa.

Resumen

Considerando a la escuela y la familia como instituciones base para un correcto desarrollo cognitivo-emocional del niño, se analizaron los diferentes factores y variables que dificultan el proceso y que de manera indirecta promueven conductas desviadas o incluso violentas, las cuales pueden llegar a derivar en futuras acciones delictivas. Se estudiaron los diferentes recursos de los que disponen estas instituciones a la hora de prevenir este problema en nuestro ámbito socio-cultural, determinando así que los caminos y medidas tomadas hasta ahora son eficientes pero no suficientes. Se prestó especial atención a la relación que se establece entre las instituciones policiales y educativas en el caso de Pamplona, con el objetivo de conocer de cerca la experiencia y las formas de proceder en nuestro contexto más específico. Con el fin de contribuir en el proceso de mejora de estos recursos, se generó una propuesta de prevención aplicable a nuestro entorno.

Palabras clave: Escuela; familia; menores; conductas desviadas; prevención.

Abstract

Considering school and family as the basic institutions for a child's proper emotional and cognitive development, we have analyzed the different factors and variables that complicate this process and can indirectly lead to deflected and even violent behaviour, and to possible criminal activity in the future. The different resources that have both institutions to prevent this problem in our social cultural area we also studied. We found that the present measures employed to date are efficient but not sufficient. We focused our study on the relationship between Pamplona's police office force and education institutions. The objective of our work was to have a clearer, first hand view of different experiences and ways of working within our specific context. With the aim of assisting in the improvement of these resources we created a "Prevention Proposal" applicable to our area of study.

Keywords: School; family; children; deflected behavior; prevention.

AURKIBIDEA

Sarrera **1**

1. Gaiaren aurkezpena eta ikuspegi teorikoa **3**

1.2 Kontzeptuak zehazten 3

1.3 Hezkuntza sistema eta bere funtzioak: gizarteratze prozesuaren garrantzia 5

1.3.1 Eskola eragile sozial gisa 5

1.3.2 Eskola, komunitatea eta familiaren arteko elkarlana 8

1.4 Eskolaren testuinguruan delinkuentzia prebenitzeko estrategiak 12

1.4.1 Familiaren eragin zuzena 12

1.4.2 Programas de prevención 16

2. Nafarroako egoera **19**

2.1 Jurisdicción de menores 23

2.2 Eskola eta poliziaren arteko elkarlana 27

2.3 Eskolaren baliabideak 31

2.4 Nafarroaren egoeraren inguruko ondorioak 35

3. Proposamena: eskolan garatzeko prebentzio programa **37**

3.1 Aurkezpena 37

3.1.1 Zergatik programa honen proposamena? 37

3.1.2 Programa oinarritzen den funtsezko kontzeptuak 37

3.1.3 Norentzat bideratua dago programa? 40

3.1.4 Helburu orokorra 40

3.1.5 Helburu espezifikoak 40

3.1.6 Programaren denboralizazioa eta faseak 41

3.2 Programaren oinarriak eraikitzen 42

3.3 Programaren zutabeak eraikitzen 45

3.3.1 Lehenengo zutabea: pertsonak eratzen; jarrera arduratsuak 45

3.3.2 Lehenengo zutabea: pertsonak eratzen; gaitasun sozialak 47

3.3.3 Bigarren zutabea: familiaren parte-hartzea 50

3.3.4 Bigarren zutabea: komunitatearen parte-hartzea 52

3.3.5 Hirugarren zutabea: bitartekaritza programa 53

3.3.5.1 Programaren aurkezpena: 54

3.3.5.2 Programa martxan jartzen 57

3.3.5.3 Programari amaiera ematen; ebaluazioa 58

Conclusiones y cuestiones abiertas **59**

Erreferentziak **63**

Gehigarriak **67**

A. Gehigarria 67

B. Gehigarria 68

C. Gehigarria 69

D. Gehigarria 70

E. Gehigarria 71

F. Gehigarria 72

G. Gehigarria 73

H. Gehigarria 74

I. Gehigarria 75

J. Gehigarria 76

K. Gehigarria 77

L. Gehigarria 79

M. Gehigarria 82

N. Gehigarria 83

SARRERA

Eurostat-eko datuek[1] Espainiako delinkuentzia tasa Europa mailan txikienetarikoa dela adierazten dute. Gainera, Barne Ministeritzaren datuen arabera[2], Nafarroako delinkuentzia tasa Espainiako delinkuentzia mailarekin alderatuz azkeneko postuetan dago. Nafarroako delinkuentzia tasa hau Iruñerria handiko (Iruñea eta inguruko auzoak) eremura mugatzen dugunean esponentzialki murriztu egiten da, eta are gehiago oraindik gure azterketa laginera, 14 urte baino gutxiagoko adingabekoak, mugatzean.

Nafarroan egindako zenbait ikerketetan, 14 urte baino gutxiagoko adingabekoekin erlazionatutako delinkuentzia kasuak gora egin dutela ziurtatzen dute ordea (Olaizola et al., 2012). Honen aurrean, beharrezkoa ikusten dugu gora egitearen faktore nagusien inguruan aztertzea, honen eragileak zeintzuk diren eta horien aurrean hartu beharreko neurriak ezagutzeko helburuarekin.

Lehenengo kapituluan, eskolak betetzen dituen funtzio sozialak, gizarteratze funtzioa, zaintza funtzioa, eskola komunitatearen arteko elkarreragina, familia instituzioa, familiak haurren garapen prozesuan duen garrantzia, interbentzio mota ezberdinak, prebentzio programak eta eskolen baliabideak jorratuko dira, hauetako bakoitzak haurrek etorkizunean garatuko duten izaera eta jarreretan duten eragina hautemateko.

Bigarren kapituluan berriz, Nafarroan delinkuentziaren prebentzioaren inguruan lan egiten duten instituzio nagusiak, eskola eta polizia, orain arte egindako lana eta gaur egun aurrera eramaten ari dutena aztertu egingo da, egindakoaren balorazioa eta hobetzeko dagoenaren inguruko azterketa egiteko asmoz.

Gaiaren inguruan jorratutako lanak eta aztertzeko dagoen informazioa nahikoa bada ere, askotan zaila izaten da gure testuingurura moldatzea. Ikerketa gehienak, Ipar zein Hego Amerikako testuinguruetan oinarritzen dira beti, Nafarroarekin alderatuz, egoera

---

[1] Hemen eskuragarri: www.ec.europa.eu/eurostat
[2] Hemen eskuragarri: www.mir.es

soziologiko, politiko eta ekonomiko guztiz desberdinak dituztenak. Hala ere, informazio hau baliagarritzat hartuko da eta beharrezko diferentzia tarteak kontuan izanda, ikerketa hauek planteatutako estrategiak, ideiak eta proposamenak gogoan hartuko dira gure testuingurura moldatzen den eta ikastetxeendako baliagarria izatea espero den programa sortzeko, hain zuzen ere hirugarren kapituluan egingo duguna.

Amaitzeko, gure eskerrak eman nahi dizkiogu lehenik eta behin Iruñeko Udaltzaingo taldeari, informazio eta datu estatistikoak eskuratzeko eman dizkiguten erraztasunengatik. Eskerrak ematea ere Paz Francés NUPeko irakasleari, haren denbora eskaintzeagatik eta gurekin izandako tratu jatorrarengatik, adingabekoak justiziaren aurrean duten egoera azalduz eta prebentzio programen inguruan informazioa eskainiz. Azkenik, gurekin hitz egitera prest adierazi diren ikastetxeetako zuzendariei eskerrak ematea geratzen zaigu, laguntzeko adierazi duten jarrerari esker lortutako informazioa oso lagungarria izan delako.

1. GAIAREN AURKEZPENA ETA IKUSPEGI TEORIKOA

14 urte baino gutxiagoko haurrek delituak betetzen al dituzte? Haur delinkuentzia arazo baten aurrean al gaude? Zein da eskolak delinkuentziaren prebentzioan bete behar duen papera?

Galdera hauei erantzuna erreferentziatzat hartuz sortua izan da ikerketa lana da hau. 14 urte baino gutxiagoko haurrak delituak egitera daramatzaten arrazoi nagusiak, haurren jarreretan eragiten duten faktoreak, portaera antisozialak garatzearen arrazoiak, justiziak kasu hauen aurrean har dezakeen papera, eskola-komunitateak duen parte-hartzea, familiaren garrantzia, ikastetxeek delituen prebentzioan betetzen duen papera, ikastetxeak dituzten baliabideak, prebentzio programak, erreforma programak eta hain garrantzitsuak iruditzen zaizkigun moduko alderdiak izango dira lan honetan zehar aztertu eta eztabaidatu egingo direnak.

Hau aztertuta, alderdi guzti hauen inguruan Iruñeak duen egoera ikertu egingo da; aurrera eramaten diren programa motak, 14 urte baino gutxiagoko haurren arteko delinkuentzia kasuak, ikastetxeak delinkuentzia kasu hauei aurre egiteko dituzten baliabideak, kasu hauen murrizpenean eragiteko baliabideak ikusiko dira.

Azkenik, Nafarroako egoera zein den ondorioztatu eta gero, testuinguru honetan aplikagarria izango den eta 14 urte baino gutxiagoko haurren delinkuentzia kasuak murriztera bideratuta egongo den proposamena aterako da aurrera.

1.2 Kontzeptuak zehazten

2000. urteko urtarrilean agertu zen Adingabekoen Erantzukizuna erregulatzen duen Lege Organikoak (LORPM)[3], adingabekoek eta gazteek Kode Penalaren aurrean duten ardura erregulatu eta kasuak aurrera eramateko eta prozesatzeko materialen perspektibak pilatu egin zituen. Lehenengoen kasuan, izendapen hau hartzen dutenak, adingabekoak, 14 eta 18 urte bitartean dituztenak dira eta bigarrenen kasuan, gazteak, 18 urtetatik 21 urte arte dituztenak (Trapero, 2012).

[3] Ley Orgánica Reguladora de la Responsabilidad Penal de los Menores

LORPM-aren motiboen erakusketak, 14 urteetan zehaztu zuen haurrei erantzukizun penala eskatzeko aukeraren limitea. Bertan, 14 urte baino gutxiagoko haurrek egin ditzaketen arau-hausteak orokorrean garrantzirik gabekoak direla ziurtatzen zen. Gainera, alarma soziala sortzera iritsi zezaketen kasuen artean, familia, eskola eta asistentzia testuinguruak horren aurreko erantzun eraginkorra emateko nahikoak kontsideratzen ziren, estatuko justizia aparatuaren interbentzioren beharrik izan gabe (Olaizola et al., 2012).

Gure azterketa laginaren barnean sartzen diren haurrak lanean zehar hartuko duten izendapena hori bera izango da hain zuzen ere, haurrak. Gainera, gure ikerketan zehar delitu kasuez hitz egiten badugu ere, garrantzitsua da nabarmentzea ekintza hauek betetzen dituzten haurrei ez diegula delinkuente deituko. Bat gatoz Paz Francés NUP-eko Zuzenbide saileko irakaslearen ikuspegiarekin, esaten duenean kontu handiz ibili behar garela haurrekin erlazionatutako kasu hauetan erabiltzen dugun terminologiarekin, honek sor ditzakeen ondorioengatik[4]. 14 urte baino gutxiagoko haurrekin tratatzen ari garela kontuan izanik, delituaren terminoa ere erabiltzea planteatu egin dugu, azkenean lana ulergarriagoa izateko asmotan erabiltzea erabaki bada ere. Gainera, lanean zehar ikertuko eta landuko diren eskolentzat bideratutako prebentzio programak “delituaren prebentzioaren” ikuspegitik planteatzea kaltegarritzat hartzen dugunez, helduek haurrengan duten ikuspegia zeharo aldatzen delako, terminologia horren erabilera ekiditea deliberatu da, horren ordez “jarrera desbideratuak garatzearen prebentzioa” edo “portaera antisozialak” bezalakoak erabiliz.

Errespetua, hiritartasuna, ez iraintzea, ez jotzea, gainontzekoak mespretxuz ez tratatzea, gauzak lapurtzea, besteak berregarri ez uztea edo horrelako edukiak transmititzen ditugunean, errespetuan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren ikuspegitik planteatzea ikusten dugu beharrezkoa. Beraz, delituaren prebentzioari buruz ari bagara ere, ez ditugu haurrak delinkuente moduan ikusiko, gizarteratze zailtasunak edo garapen zailtasunak dituzten gazteak bezala baizik.

[4] Paz Francés Lecumberri, NUP-ko irakaslearekin izandako elkarrizketa, NUPko bere bulegoan, 2016ko apirilaren 5ean.

Lanean zehar agertuko den beste kontzeptu bat hezkuntza sistemarena izango da. Guerrero Serón-en (Granados-en, 2012) hitzetan, sozializazio prozesuez eta kulturaren transmisioaz arduratzen den instituzio soziala da hezkuntza sistema. Honen inguruan agertu daitezken gaizki ulertuak ekiditeko, hezkuntza sistemak barne hartzen dituen zenbait kontzeptu definituko ditugu.

Funtsean haurtzaroan eta adoleszentzian eragina duten eta derrigorrezkoa zein doakoa den gizarte edo herrialdeetako hezkuntza sistema formalei izena emateko erabiliko dugun termino generikoa "eskola" izango da. Era berean, eskolak era arautuan, libreki edo behartuta gizartearen populazioari, normalean gazteak, instituzio erregulatua ematen dien eskola sareari "eskola sistema" deituko diogu (Granados, 2012).

Honekin lotuta, Guerrero Serón-en esanetan (Granados-en, 2012), era egonkorrean ezagutzen transmisioaz eta formakuntzaz arduratzen diren instituzio formalak barne hartzen dituen sistemari, "irakaskuntza sistema" deituko diogu. Azkenik, era arautuan eta lan mundurako prestatzen duten instrukzio prozesuez ari garenean, "irakaskuntza" bezala adieraziko dugu

1.3 Hezkuntza sistema eta bere funtzioak: gizarteratze prozesuaren garrantzia

1.3.1 Eskola eragile sozial gisa

Eskola instituzio sozial bezala sortu zen momentutik, zenbait izan ziren atxikitu zitzaizkion funtzioak (Granados, 2012). Hauek gizartearen menpe egon dira betidanik eta gizartearen garapena izan da halaber funtzioen garapena zehaztu duenak. Jakina denez, gizarteak azken urteetan jasan dituen aldaketak ugariak eta sakonak izan dira eta gizartearen esparru guztietan zehar eragina izan dute. Horrela, Espainiako Gurasoen Konfederazioak[5] sortutako oinarrizko dokumentuan (2003) ziurtatzen den moduan, aldaketa hauek eskolan eta honek bete behar dituen funtzioetan eragina izan dute zuzenean; hala nola, sarearen influentzia informazio iturri moduan; egunero sortzen den informazio kopuru etengabean; familiaren eraketa, estrukturazio eta

[5] CEAPA. Confederación Española de Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos

modelo berrian, lan mundura emakumeek izan duten behin betiko eransketan; gizarteratze primarioa bertan behera uztean; botere eta kultura berrien goratzean; haurrak helduen munduekin erlazionatzeko era berrietan etabar. Baieztatu zen ere, aldaketa hauen artean badaudela eskolan oraindik ere eragin handiagoa izan dutenak; hala nola zaintza funtzioa:

> *Gaur egun, gero eta ohikoagoa da gurasoak haurrekin egoteko behar bezain denbora ez izatea eta haien ikaskuntza prozesuan parte ez hartzea. Lan orduen hetereogenitateak ere eragin handia izan du, gero eta gehiago zailtzen ari baita gurasoen lan orduak eskolaren orduekin bat egitea. Horregatik, eskola, haurrak gero eta denbora gehiago igarotzeko aukera izatea eman behar duen espazio bat delaren ustea dago* (CEAPA, Documento Base, 2003).

Gauzak horrela, eskolak bete behar dituen funtzio zeintzuk diren ez dago batere argi oraindik. Granados-ek (2012) egindako sailkapenean oinarrituz , hauek izango lirateke:

Lehenengoa, gizarteratze eta kohesio funtzioa litzateke; belaunaldi berriei arauak, balioak, sinesmenak eta sentitu nahiz pentsatzeko moduak transmititzean datzana eta gizartearen oreka eta biziraupena bermatzea helburutzat duena. Gure lanerako bereziki aipagarria den funtzioa da hau; izan ere, gizarteratze prozesu honi esker, etorkizunean gainontzekoekin elkarreraginean bizitzeko gaitasuna garatuko dugu, beharrezko konpetentzia sozialak garatzearen ondorioz.

Bigarrena, aldakuntza sozialean laguntzen duen funtzioa dugu. Gizartearen egonkortasuna eta jarraitasuna ziurtatzeko, aldakuntza sozialak beharrezkoak direnaren ideia transmititu beharra du eskolak. Horretarako, garapena, ongizatea, berdintasuna, justizia edo kritikotasuna moduko ideiak zabaltzeko papera hartu beharko du.

Hirugarrena, lan-merkaturako prestatzeko funtzioa egongo litzateke; haurrek jasotzen duten hezkuntza, gizarteko estruktura ekonomikoek beharrezkoak dituzten gaitasun, trebetasun, ezaguera eta jarreretan oinarritzen duena. Honekin erlazionatuta, funtzio politikoa daukagu, hezkuntza eta eskola sistemak botere hegemonikoen menpe dauden heinean, hauen ikuspegia islatuko baita curriculumean.

Azkenik, zaintza funtzioa dugu, aurretik aipatutako gizartearen aldaketak haren garrantzia batez ere goratu egin dutenak. Zaintza funtzioa, eskolak hartu beharra duen premia bezala agertzen da estruktura familiarra aldatzen joan den heinean. Gurasoen Konfederazioak sortutako oinarrizko dokumentuan (2003) aipatutakoa geureganatuz, duela zenbait urte, familia instituzioa izaten zen funtzio hau bere osotasunean betetzen zuena; adibidez, haurrak etxean senideren batekin geratzen zirenean. Familia-egitura eta lan ordutegiak aldatzen joan diren heinean ordea, gero eta gehiago dira eskolak funtzio hau betetzearen beharra duten familiak. Eskolak honetaz konturatu dira jadanik eta gero eta gehiago dira honi aurre egiteko garatzen ari diren mekanismoak.

Cook, Gottfredson eta Na-k (Medina-n, 2013) azpimarratzen duten moduan, eskolaren funtzio guzti hauek duten garrantzia hain handia da, non, gizartearen talde dominanteetan, errendimendu akademikoan, eskola eta ikasleen loturetan, zigorren ezartzearen eraginkortasunean eta gizartearen jarrera bideratuen kontrolean ere eragina izango dute.

Granadosek (2012) aipatzen duen moduan, gizarteratze prozesuari esker, gizakiak gizartearen jokamolde eta arauak barneratzen ditu. Prozesu honen garapena eta prozesu honetan zehar barneratzen ditugun ekintza sozialen mugen ezarpena ordea, indibiduo eta kultura bakoitzaren araberakoa da, testuinguru batetik bestera zeharo aldatu egiten dena. Rutter et al. (2000) jarrera antisozialen garatzean eragina duten faktoreen artean, informazio sozialaren prozesamendu desitxuratua, gainontzekoetan intentzio negatiboak antzemateko joera okertua, interakzio sozialen gaizki ulertua eta gainontzekoen jokaera oldarkorretan arreta ipintzea zehaztu zituzten. Beraz, talde sozial bakoitzean ezartzen diren arau eta portaera desberdinetara moldatzea eta gureak bilakatzea izango da eguneroko bizitza bide egonkor eta igargarri batetatik aurrera egiteko modua, gainontzeko indibiduoekin erlazionatzean izaten eta izango dituzten jokabideak eta portaerak aurreikusteko eta honen arabera jokatzeko modua.

Pérez (2009) erreferentziatzat hartuz, eskolaren oinarrizko objektibo bat indibiduo bakoitzaren garapen beharretara aurre egingo dion sistema estrukturala bermatzea da. Horrela, hezkuntza sistemak bere osotasunean, haurrak haren buruarekin,

gainontzekoekin eta testuinguruarekin erlazio positibo batean fisikoki, psikikoki, sozialki eta espiritualki garatzeko aukera eraikitzeko beharra duela esan dezakegu.

Ortiz, et al. (2005) autoreak aipatzen duten moduan, banako bakoitzaren hezkuntza prozesua, haren identitatearen konfigurazioa eta bilaketa ahalbidetzen duen dispositibo sozial, hezitzaile eta ludiko moduan agertzen den sistema estruktural batez lagunduta ez dagoenean, jarrera biolentoak edota deliktiboak garatzeko aukerak handitu egiten dira. Gainera, haurrak eskolarengan interesa galtzeko arriskua gora egiten du ere, absentismoan amaitu eta etorkizunean delinkuentzia munduan sartzera eraman dezakeena.

Beraz, Ortiz et al. (2005) egiten duten ondorioztapenean oinarrituz, gure ikerketaren aldagai diren lehen hezkuntzako haurrak sektore kritiko bezala kontuan hartu behar dira; izan ere, nerabezaroaren lehenengo etapak, adin tarte hauetan, 10-12 urte (Munduko Osasun Erakundeak definitua) garatzen dira. Haur hauen nortasun soziala garatzea ahalbidetzen duen testuingurua, erabakigarria izango da helduaroan izango dituzten rolak zehazteko; izan ere, biolentzia eta delinkuentziarekin erlazionatutako portaeren trataera desegoki batek, helduaroan identitate biolento edo deliktibo bat indartu dezake.

1.3.2 Eskola, komunitatea eta familiaren arteko elkarlana

Vargas-en (2007) hitzetan oinarrituko gara hezkuntza instituzioak eratu ziren unetik, ikasleen, irakasleen eta familien onuran pentsatuz sortu egin zirela defendatzeko. Horrela izanda, eskola eta parte-hartzaileen artean ukaezina den erlazioa existitzen dela baieztatu daiteke.

Erlazio eta elkarlan honetan, aurretik aipatutako funtzioen betetzean parte hartzen duen komunitatea izeneko instituzio multzoa parte hartzen du. Instituzio hauek, eskola-testuinguru batetik bestera aldatu egiten badira ere, eskolaren beharren edo hezkuntza proiektuaren arabera, aldatzen ez dena helburua da:

> *…hezkuntza komunitatearen parte hartzea eta ikasleak, familiak, irakasleak, zentroak, administrazio publiko eta pribatuak eta instituzioak orokorrean egin*

> *behar duten esfortzua ezinbestekoa izango da bilatzen den kalitatezko hezkuntza ziurtatzeko* (de León Sánchez, 2011, 14).

Testuinguru hauek elkarrekin antolatu eta eraiki behar dira, hauen arteko parte hartzeagatik hezkuntza garapen eraginkorra sustatzen baita (Vila, 1998). Instituzio hauen helburua, haurrak jasotzen duten hezkuntza ahalik eta erreal eta konplexuena izatea da. Ondorioz, eskola eta komunitatearen arteko osagarritasuna sustatzea ezinbestekoa da, haurrak bertan aurkituko dituen errealitateak erabakigarriak izango baitira haien garapenerako.

Ortiz et al. (2005) era egokian deskribatzen duten moduan, instituzio hauek betiere, banakoaren garapenean laguntzen duten ezaugarri mesedegarriez osatuak egon behar dira; izan ere, ezaugarri positibo hauek ematen ez direnean, instituzioak mesedegarriak izateari utzi diezaiokete eta kaltegarriak bihurtu daitezke.

Komunitate honetan parte hartzen duten instituzioak askotarikoak badira ere (administrazio publikoa, gurasoen elkarteak, enpresa pribatuak, familiak…), guk familiaren instituzioan fokatuko dugu azterketa. Izan ere, familia eta eskola hezkuntza sistemaren bi instituzio nagusiak kontsideratzen diren heinean, bien arteko elkarreraginaren bitartez lortuko dira haurraren garapenean hobekuntza handienak.

Estatuko eta Autonomietako Kontseiluen XXIII. batzarrean (2015) esan zen bezala, ezin daiteke haurraren hezkuntza prozesua ulertu eskola edo familia falta bada. Baina nolakoa izan behar da elkarlan hori abian jartzeko prozesua?

Honek, betidanik buruhausteak eragin ditu, erlazioa nola eman behar den argi ez dagoelako. Mañani eta Sánchez-en (1997) esanetan, familiek eskolarekin lehenengo kontaktua izaten dutenean, ezezaguna den espazio batetara iristen dira, ez dakite zein jarrera hartu behar duten, ez dakite nola parte hartu, orokorrean ez dakite zein den ingurugiro horretan “bete behar duten papera”. Horrela izanda, ondoriozta daiteke eskola izan beharko litzateke erlazio honetan lehenengo pausuak eman beharko lituzkeena, komunikazio bideak sortuz eta informazio trukaketa erraztuz.

Modu batean edo bestean, beharrezkoa ikusten dugu kolaborazio hau emateko bideak aurkitzea, instituzio hauek espazio eta denbora zehatzak izatea haien komunikaziorako, elkarrekintzarako, informazio trukerako, estrategien planteamendurako eta baliabideak partekatzeko. Bolívar-ek (2006) aipatzen duen bezala, guzti hau garrantzitsua da ez soilik eskolak gizartearen hezkuntza eskaerei hark bakarrik aurre egiteko gaitasun nahikorik ez duelako, baizik eta instituzioek prozesu indibidualak garatzen dituztenean, familiek haien seme-alaben hezkuntza prozesuan duten garrantzia alde batera uzten delako eta ez direlako espero diren emaitza onuragarriak lortzen. Elkarlan hau gero eta gehiago sustatu heinean, haurren beharrak asetzeko aukera handiagoak emango dira eta ondorioz hezkuntza prozesuan agertzen diren beharrak asetzeko aukera handiagoak ere.

Familiak eskolekin zituzten erlazioak eta familien ezaugarriak haurren garapen prozesuan zituzten eraginak XX. mendean hasi ziren aztertzen[6]. Hasiera batean, ikerlan hauen gehiengoak, familiaren estruktura eta tamaina, jatorri etnikoa, egoera sozio-ekonomikoa eta maila kulturala bezalako kontzeptuetan zentratu egin ziren, hauek haurren trebetasun intelektualetan eta eskola porrotan zuten eragina ikertuz.

Urte batzuk pasata, ikerketa hauek gero eta indar handiagoa irabazten joan ziren, are gehiago oraindik, 1966. urtean Coleman dokumentuak adierazi zuen bezala, familiarekin zerikusia zuten aldagaiak, eskolarekin zerikusia zutenak baino eragin handiagoa zutela ondorioztatu egin zenean.

Ikuspuntu teoriko desberdinak existitzen dira familiak eskolan parte hartzearen onurak aztertu egin dituztenak, baina azken urteotan, soziologia arloan aditua den Epstein doktoreak egindako proposamena izan da indar gehien irabazi duenetariko bat, arlo teorikoan egindako aurrerapenengatik eta herrialde desberdinetan aurrera eraman diren praktikengatik.

Epstein-ek (2002), familia, eskola eta komunitatea, ikaskuntzan eragina duten 3 esfera bezala behatu zituen. Haren esanetan, esfera hauen arteko interakzioa gero eta handiagoa izan, handiagoa izango da haurrek hezkuntzaren inguruan mezu komunak

[6] Estatuko eta Autonomia-erkidegoetako Eskola Kontseiluen XXIII. batzarrean sortutako dokumentuan aipatzen den moduan.

eta koherenteak jasotzeko aukera. Modelo honen arabera, 3 esfera hauen arteko kooperazioa errazten eta ahalbidetzen bada, haurren garapen eta ikaskuntzan eragin positiboak izango dituzten praktikak aurrera ateratzeko aukera emango da.

Martínez González-en ikerketak (García Bacete-n, 2003) erakusten digun moduan, kooperazio honek esfera hauetako bakoitzean izaten dituen efektu positiboak frogatu egin ziren, hurrengo taulak laburbiltzen duen moduan:

Taula 1. Familien eta eskolaren arteko elkarlanaren onurak

Ikasleengan efektuak	Irakasleengan efektuak	Gurasoengan efektuak
Kalifikazio eta errendimendu hobeak.	Irakaste eta gaitasun interpertsonal hobeak.	Auto-eraginkortasun zentzua handiagotu.
Absentismo eta abandonatze tasa txikiagoak.	Irakaskuntzarekin konpromiso handiagoa hartzea.	Eskola programen inguruko ulermena areagotu.
Eskolaren zereginen aurrean jarrera positiboagoak.	Zuzendariak haien lana gehiago baloratzea.	Seme-alaben hezkuntzan duten papera gehiago baloratzea.
Jarrera moldagarriagoa, autoestima altuagoa.	Ikasle izatearekin poztasun maila altuagoa.	Haien hezkuntza maila handitzeko motibazio altuagoa.
Klaseko jardueretan parte hartzea.		Seme-alabenganako komunikazioa hobetzea.
Hezkuntza bereziko programetan eskolatze maila baxuagoa.		Gurasotasun abilezia positiboak garatzea.

Iturria: García Bacete-n (2003, 428) agertzen den taulan oinarrituta egindako moldapen pertsonala.

Machargo-k (de León Sánchez-en, 2011) aipatzen duen moduan, zenbait dira bi instituzioen arteko elkarlana oztopatu dezaketen alderdiak ordea. Lehenengoa, hezkuntza prozesuaren konplexutasunaren ondorioz bertan talka egiten duten interes ugariak dira. Bigarrena, irakasleek, gurasoek eta eskolek, planteatzen diren helburu eta itxaropenen aurrean iritzi kontrajarriak izatearena. Hirugarrena, instituzio bakoitzak ezarri edo finkatu nahi dituen konpetentziak eta ardurak definitzerako orduan nahasteak aurkitzea. Azkenik, batak bestarengan dituzten mesfidantzak dira. Bakoitzak burutzen dituen ekintzen inguruko autokritika ez egitearen ondorioz, gauzak behar bezala ez doazenean batak besteari erruak leporatzen dizkio eta hezkuntza prozesuan zehar biak protagonistak izatearen nahia dela eta, batak bestearengan duen konfiantza murriztu egiten da elkarlan egoki baten bidea zailduz.

Beste zenbaitetan, eskolak proposatzen dituen kooperazio proiektuen aurrean familiak izaten duten postura desegokia da. Cabrera-k (2009) adierazten duen moduan, hauek dira zenbait adibide:

- Erosotasuna: badaude gurasoak irakaslearekin elkarrizketak molestia bat direla eta gainera ezerez dietela laguntzen pentsatzen dutenak.
- Oztopo direla pentsatzea: guraso askok ez dute eskolarekin lan egin nahi haiei egokitzen ez zaien gai bat dela uste dutelako.
- Ezintasuna eta segurtasun falta: parte hartzen ez duten guraso askok, prestaketa egokia ez dutela pentsatzen dutelako da.
- Jakingabetasuna: guraso askok, ez dakite parte hartu dezaketela.
- Denbora falta: beste askok, haien eginbeharrak direla medio izaten duten denbora faltagatik ez dira eskolarekin elkarlanean aritzen.
- Arduragabetasuna edo interes falta.

Honi aurre egiteko, Estatuko eta Autonomia-erkidegoetako Eskola Kontseiluen XXIII. batzarrean sortutako dokumentuan (2015) agertzen diren bi proposamenak, eskola programazioa komunitatearen eta bereziki familiaren laguntzarekin aurrera ateratzea eta zentroen inspekzio eta ebaluazio prozesuak aurrera eramateko orduan gurasoen parte hartzea, aipatzeko modukoak direla uste dugu.

Bi instituzioen arteko elkarlana haurren hezkuntza prozesua modu eraginkorrean garatzeko beharrezko alderditzat kontuan hartzen dugun unetik, zailtasun hauen gainditzean fokatzen diren estrategiak ongietorriak izango dira. Gainera, horrelako praktikak martxan jartzen baditugu eta eskola-familien arteko elkarlana sustatzea lortzen badugu, haurrarengan lortuko diren onurak askotarikoak izango dira eta hauek haren erlazioetan, komunikatzeko moduetan eta jarreretan eragin positiboak izango dituzte, epe luzean ere jarrera desbideratuen prebentzioan lagunduko dutelarik.

1.4 Eskolaren testuinguruan delinkuentzia prebenitzeko estrategiak

1.4.1 Familiaren eragin zuzena

Villar et al.-en (2003) agertzen den bezala, zenbait dira haurraren jarrera desbideratuak haren jatorrizko familia nukleoaren ezaugarriekin erlazionatzen dituzten

ikerketak. Ikerketa honetan, familia instituzioaren barnean haurren garapen prozesuan eragina duten faktore nagusiak aztertu egin ziren; hala nola, gatazka familiarra, familiaren arteko komunikazioa eta gurasoen hezkuntza estiloa.

Taula 2. Dimentsio familiarrak ebaluatzeko erabilitako ítem-ak

Gatazka familiarrak
Astean behin behitzat haserretzen gara
Harekin adostasunera iristea zaila izaten da
Gure artean arazo bat sortzen denean akordio batetara iristen gara
Eztabaida handiak izaten ditugu gauza txikiengatik
Zerbait egitea nahi duenean oihu egiten du
Komunikazio familiarra
Harekin hitz egitea gustuko dut
Entzuten nau zerbaitez hitz egitea behar dudanean
Tartea egiten du nirekin egunero hitz egiteko
Nire ikuspuntua ulertzen du ados ez gaudenean
Egunero elkarrizketa atseginak ditugu
Eztabaida batean gaudenean entzuten nau
Gatazka bat dugunean elkarrekin konpontzen dugu
Gurasoen hezkuntza estiloa
Eskatzen didana egiten ez badut berak egingo duela badakit
Betetzen ez dituen zigorrekin mehatxatu egiten nau
Gure artean arazo bat sorten denean berak esandakoa egin behar da
Arauren bat salto egiten dudanean zehaztutako zigorra betetzen du
Ados ez gaudenean, nahi dudana egitea uzten dit
Etxean, bete behar diren arau minimo batzuk badaude
Arau hauek etxeko partaide guztien artean finkatuak izan dira
Nire beharrekin ez betetzearen ondorioak ezagutzen ditut
Etxean gurasoak dira nik bete behar ditudan arauak ezartzen dituztenak

Iturria: Villar et al. (2003) testuan agertzen den sailkapenean oinarrituz sortutako moldapen pertsonala.

Azterketa hauetatik ondorioztatu egin zen lehenengo gauza, gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioak gatazkatsuak direnean eta lotura afektiboa eskasa denean haurrak jarrera desbideratuak garatzeko arrisku handiagoa duela izan zen. Gainera, familiaren barnean ematen diren erlazio afektiboak jarrera desbideratuekin erlazio zuzena dutela ikusi egin zen; hala nola, klima familiar ezegokia existitzen denean haurrak desbideratutako lagunekin elkartzeko tendentzia dutelako, familiek auto-estima baxuaren garapenean eragiten dutelako eta haurrek balore sozialen gabezia zein eskola errendimendu baxua adierazten dutelako.

Paz Francés NUPko Zuzenbide Penaleko irakaslearen hitzei erreferentzia eginez[7], jarrera desegokiak prebenitzeko egin behar den lehenengo gauza, familiak egoera ekonomiko egonkor batez baliatzea da (gosea eta hotza ez pasatzeko, bizitoki duin bat izateko, gainontzekoak bezalako liburuak izateko, gurasoekin erlazio positiboa izateko), laburbilduz, haurrak aurrera ateratzea ahalbidetuko dien egoera ekonomikoa bermatzea.

Irakasleak eta bere lan taldeak adingabekoak horrelako jarrerak hartzera eramaten zituen elementu psikosozialen inguruan Nafarroan egindako ikerketa lanean (Olaizola, et al., 2012), hauek izan ziren lortutako emaitzak: gurasoekin erlazio on bat ez izatea eta eskola absentismoa, kasu hauetako askotan agertzen ziren arrisku faktoreak izan arren, gehien errepikatzen zirenak, hezkuntza eredu sendoa ez izatea, planifikatutako ekintza gutxi izatea, jarrera desbideratuak dituzten lagunekin elkartzea, bizitokiz aldatzea (kasuen %56an agertzen zena), familiaren arazo ekonomikoak eta eskolan errendimendu baxua izatea izan ziren.

Azken hauei “eskola errendimendua” erreferentzia eginez, Estatuko eta Autonomia-erkidegoetako Eskola Kontseiluen XXIII. batzarrean sortutako dokumentuan (2015) esaten den bezala, familietan ematen diren erlazioak eta hezkuntza prozesuak garatzeko moduak, haurren garapen prozesua eta eskolan izaten dituzten emaitza akademikoak mesedetu edo zaildu egiten dituzte. Horien artean, etxean erabilitako lengoaia, familiaren giro afektiboa, diziplina eta kontrol estrategiak edo gurasoek hezkuntzari buruz zituzten ezagutzak bezalako aldagaiak aurkitu ziren.

Portaera horien azterketa egin eta gero, gurasoek haien haurrenganako itxaropen altuak izatea, guraso-seme-alaben arteko komunikazioa (nahiz eskolarekin zerikusia duten gaiekin nahiz orokorrean), gurasoen hezkuntza-maila, maila soziala edo familiaren ezagutza mailarekin zerikusia duten beste ezaugarri batzuk izan ziren haurren errendimendu akademikoan ondorioak izaten dituztela aztertu ziren aldagai garrantzitsuenak.

[7] Paz Francés Lecumberri, NUP-ko irakaslearekin izandako elkarrizketa, NUPko bere bulegoan, 2016ko apirilaren 5ean.

Gómez Dacal-ek (Ruiz de Miguel-en, 2001) egiten duen sailkapenean oinarrituz, bi dira familiaren instituzioan banatzen diren aspektu motak. Alde batetik aspektu estrukturalak eta bestetik, dinamikoak. Lehenengoak, erreferentzia egiten diote familiaren egoera sozio-ekonomikoari, gurasoen formakuntzari eta familiaren maila kulturalari. Bigarrenak, klima familiarrarekin eta familiak haurrarengan dituen jarrerekin zerikusia izan dezakeen edozein aldagairi egiten diote erreferentzia.

Taula 3. Errendimendu akademikoarekin erlazionatutako familia-faktoreak

Familia faktore estrukturalak	
Maila ekonomikoa	**Gurasoen formakuntza**
Zonalde pobreetan bizitzea Etxean ikasi ahal izateko material falta	Gurasoen hezkuntza maila Gurasoen errekurtso kulturalak Gurasoen maila soziala Familia bateratua izatea
Familia faktore dinamikoak	
Gurasoek haurrenganako itxaropenak izatea Guraso-haurren arteko komunikazioa Euskarri familiar eza Gurasoen permisio maila Gurasoen hezkuntza estiloa	

Iturria: Gómez Dacal-en (Ruiz de Miguel-en, 2001, 86) oinarrituta sortutako moldaketa pertsonala.

- Liburutegia: zenbait ikastetxek eskaintzen duten zerbitzua, liburuzain baten ardurapean dagoena eta espazio egokia haurrek irakurtzeko, bibliografia eta interneteko informazioa kontsultatzeko eta eskolako lanak egiteko. Ordutegiak ikastetxe batetik bestera aldatu egiten dira.
- Jantokia: jateko orduan etxera bueltatzea arazo bat den haur eta gurasoendako sortua.

- Haurtzaindegia: lan-orduak baino lehen irekitzen den zerbitzua, eskolara behar baino lehenago iristen diren haurrak laguntzeko sortua. Hau da Alaitz ikastolak adibidez honen inguruan azaltzen diguna[25]:

  > *Ikasturteko egun guztietan funtzionatzen du, goizeko 7:40etatik aurrera. Ordu honetatik, zerbitzua eskatzen dituzten ikasleek bi monitore euskaldunek atendituta daude, adinaren arabera antolaturiko bi gela desberdinetan. Ordutegi horretan, ikasleek aktibitate anitz burutu ditzakete: jolas bideratua, jolas librea, irakurketa, banako edo taldeko lana, ikasten aritzea... Goizeko 9:00etan ikasleak, monitoreek lagunduta, beren geletara joaten dira* (Alaitz ikastola).

- Eskolaz kanpoko ekintzak: beste zenbait ikastetxeek, lan-orduak amaitu eta gero eskola giroan jarraitzeko kanpoko ekintzak prestatzen dituzte; haien artean, kultur jarduerak eta kirol jarduerak.

Zaintza funtzioak, haurrak haien eskola-kanpoko denbora-tartetan espazio seguru, hezitzaile eta ludiko batean egotea ahalbidetzen du. Haurrak eskoletan dauden bitartean, jarrera antisozialak garatzeko erraztasunak emango dizkien testuinguruetan ibiltzeko eta murgiltzeko aukerak murrizten dira. Guzti hau; hala ere, haurraren testuinguru familiarraren araberakoa izango da beti, nahiz eta, esan berri dugun bezala, eskola gizarteratze eragile erreferente positiboa den heinean, eskaintzen duen zaintza funtzioaren ondorioz eragin positiboa izango duela espero den.

Honen inguruan estatu mailan egin diren aurrerapenak nahiko eskasak badira ere, Iruñeko ikastetxe batek azaldutako programa komentatuko dugu, PROA (Lehen Hezkuntzako laguntza programa)[26] izenekoa. Programa hau, eskolaz kanpoko ordutegian laguntza moduan eskaintzen den programa da, hezkuntza arazoak dituzten 5. eta 6. mailako ikasleei bideratuta; hala nola, heltze prozesuan atzerapenen bat, klasean eta zentroan integrazio maila txikia, lan ohitura eza edo ikaskuntza prozesuan

[25] Alaitz Ikastolaren web orrialdean eskuragarri: www.alaitzikastetxea.educacion.navarra.es/web/eu/zerbitzuak/haurtzaindegi

[26] Hemen eskuragarri: http://www.mecd.gob.es/educacion-mecd/areas-educacion/comunidades-autonomas/programas-cooperacion/plan-proa/acompanamiento-escolar-primaria.html

atzerapenak dituztenei[27]. Laguntza programa hau zaintza funtzioa betetzearen helburuarekin sortu ez bazen ere, tutoretza eta errefortzu pedagogiko sistema baten bidez eta gazteek haien hezkuntza prozesua garatzeko testuinguru egokia eskaintzean, defendatu dezakegu eskola errendimenduan eta jarrera antisozialen garapenean efektu positiboak izan ditzakeela.

Amaitzeko, aitortu beharra dugu egindako elkarrizketa kopurua ez dela nahikoa izan ikastetxeen egoera orokorraren inguruan ondorioak ateratzeko; hala ere, eskuratutako informazioa baliogarria egin zaigu ikastetxeek jarraitzen dituzten prozesu eta teknika nagusien inguruan ondorioztatzeko.

2.4 Nafarroaren egoeraren inguruko ondorio pertsonalak

Nafarroan delinkuentziaren prebentzioaren inguruan aurrera eramaten diren estrategiak eta mekanismoak orokorrean egokiak eta eraginkorrak direla aztertu izan dut. Prebentzio lan hau bultzatzen duen instituzioa gehien bat Nafarroako Gobernua da, alde batetik, adingabekoen delituei aurre egiteko biltzen dituen babes eta erreforma programekin, bestetik ikastetxe publiko eta pribatu itaunduak urtero aurkeztu behar duten bizikidetza programaren proposamenarekin eta azkenik eskolak eta familiak gai honekin lotutako arazoen aurrean laguntzeko bideratutako eta eskuragarri dagoen Bizikidetzarako Aholkularitza departamentuarekin.

Aipatutako erreforma programak, haurrarengan sortzen dituzten ondorioak negatiboak direla eta, negatibotzat kontsideratzen baditugu ere, kasu larrienetan esku-hartzeko baliagarriak izan daitezkeela ulertzen dugu eta behintzat erabiltzea beharrezkoa den momentuetan eskuragarri izateko baliagarriak ikusten ditugu.

Gainera, Nafarroako Gobernuaren web-orrian, Bizikidetza eta Berdintasunaren atalean[28], Ikastetxeek haien prebentzio programak aurrera eramateko zenbait gida eta dokumentu gehigarri daude; hala nola, ikastetxeko bizikidetza plana nolakoa izan behar denaren eredua, ikastetxeko bizikidetza panaren urteko zehaztapenak

[27] Iruñeko ikastetxeekin izandako elkarrizketetan lortutako datuak, ikastetxearen zuzendaritza bulegoan, 2016ko maiatzak 23an.
[28] Hemen eskuragarri: https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/convivencia-e-igualdad

prestatzeko eredua, ikastetxeko bizikidetza planaren urteko zehaztapenen memoria, eskola jazarpeneko kasuetarako protokoloaren eredua… Guzti hauek, ikastetxeak haien prebentzio programak sortzerako orduan oso lagungarriak dira, eta beraz Nafarroako Gobernuaren lana onestu egin behar dugu alde honetatik ere.

Beste aldetik, Iruñeko Udaltzaingoak betetzen duen papera aipatzekoa dela uste dut. Gaur egun, bi unitate dituzte delinkuentziaren prebentzioaren gaietan lan egiten:

Lehenengo taldea "Loturako Polizia" izena hartzen du. Hauek, Iruñerriako sektore bakoitzeko komunitatearekin erlazionatzeko zeregina du[29]. Sektore bakoitzeko botikekin, hotelekin, merkataritza-guneekin, osasunbideekin, Civivox-ekin, liburutegiekin eta ikastetxeekin kontaktuan jartzen dira. Kontatu honen arrazoia, auzoan adingabeko haurren inguruan ematen diren jarrera orokorrak ezagutzea da, auzoaren egoera nolakoa den determinatzeko eta beharrezkoa den esku-hartzea aurrera eramateko.

Bigarren taldea, Segurtasun eta Administrazio Polizia Unitatea taldea daukagu, lehendik aipatutako hitzaldiak zabaltzeaz arduratzen den taldea. Bigarren talde hau 8 polizia osatzen dute, hitzaldietako gaietan adituak direnak. Hauek, ikasturtean zehar ikastetxe desberdinetara gerturatzen dira, aurretik adostutako hitzaldiak ematera.

Bai poliziaren bai ikastetxeen esanetan, bi instituzioen artean ematen den elkarlan hau onuragarria izaten da bai ikastetxeko testuinguruaren inguruan informazioa elkartrukatzeko baita haurrak, gurasoak eta irakasleak zenbait gai delikaturen inguruan informatuta mantentzeko ere.

Hala ere, ikastetxeen esanetan oinarrituz, "bizikidetza oraindik ikastetxeek duten erronkarik handiena da", egunero agertzen diren kasuen konplexutasunagatik eta askotan esku hartze hori era aberasgarrian aurrera eramateko modua batere argi ez dagoelako. Hau esanda, gauzak ongi egin direnaren eta egiten ari direnaren iritzia badugu ere, oraindik ere gehiago egin daitekeenaren aldekoak gara.

[29] Iruñeko udaltzaingoaren Loturako Polizia unitateko arduradunarekin maiatzak 4ean haren bulegoan izandako elkarrizketan eskuratutako informazioa.

3. PROPOSAMENA: ESKOLAN GARATZEKO PREBENTZIO PROGRAMA

3.1 Aurkezpena

3.1.1 Zergatik programa honen proposamena?

Tremblay eta Craig, eta Burns et al., (Vásquez-en, 2003) egindako baieztapenean oinarrituko gara galderari erantzuna emateko. Izan ere, delinkuentetzat hartzen diren helduekin aurrera eramandako prebentzio neurrien inguruko efektu positiboen gabezia adierazten duten interbentzioek, haurrekin jarrera deliktiboak prebenitzeko programen saiakerak justifikatzen dituzte, batez ere adoleszentzia etapa hau, haien portaerak eraldatzeko eta etorkizunean efektu handiagoak izango dituzten interbentzioak txertatzeko momentua bezala kontu hartzen badugu.

Nafarroako egoera aztertu eta gero, adingabekoen delinkuentzia gaiari aurre egiteko orain arte hartutako neurriak egokiak direla esan beharra dago, horregatik, bide honetatik jarraitzea da gure proposamena, material berriak sortuz eta sortzen diren egoeren aurrean erantzunak emanez.

Gure proposamena honekin lotuta sortzen da guztiz. Gauzak bide egokia hartu dutela probestuz eta gizartearen kontzientziamendua eta parte hartzea oinarritzat hartuz, adingabekoen delinkuentziaren prebentzioan sakonduko duen eta ikastetxeentzat baliabide aproposa izango den prebentzio programa.

3.1.2 Programa oinarritzen den funtsezko kontzeptuak

Delinkuentzia zuzenean prebenitzera bideratutako programak egon badira ere, interesgarriagoa iruditzen zaigu delinkuentzia jarrerekin erlazionatutako arrisku portaerak saihestera bideratutako programetan oinarritzea gure proposamena aurrera eramateko, jarrera antisozialak, galera kognitiboak, gurasoen aldeko hezkuntza desegokiak eta portaera nahasteak prebenitzean oinarritzen direnak; hauen helburu zuzena delinkuentziaren aurka egitea ez bada ere.

Hauen artean, 3 dira orain arte nagusiki erabiliak izan diren programa motak. Lehenengoak, haurrentzat bideratuta daude espresuki; haur gatazkatsuei zuzenean

bideratutakoak eta klase osoarentzat bideratutakoak ezberdindu daitezkeenak. Bigarrenak, gurasoen jokabide eta jarrerak hobetzean oinarritzen da, eta hirugarrenak gurasoek eta haurrek elkarrekin lantzeko bideratuta dago.

Azkeneko hau izango da guk erreferentziatzat hartuko duguna, baina moldaketa txiki bat gehituz, gure programan eskola-komunitatearen parte hartzea ere garrantzi handia izango du. Izan ere, ikerketa lan honetan zehar adierazi dugun bezala, delinkuentziaren prebentzioaren alorrean emaitzarik onuragarrienak lortzeko bidea eskolaren, komunitatearen, gurasoen eta ikasleen arteko elkarlana baita.

Proposamena ekoizterako orduan, alde batetik Ipar Amerikan eta Hego Amerikan aurrera eramandako zenbait programen inguruko dokumentuak aztertu egin dira (Akers, 2007; Ortiz et al., 2005; Rodríguez, 2005), delinkuentziaren prebentzioan lan egiteko teknikarik eraginkorrenak ezagutzeko asmoz. Bestetik, Espainian aurrera atera diren programen inguruko zenbait dokumentu (Ibarrola-García, eta Iriarte Redín, 2013; Pulido et al., 2013; eta Hernández, 2001) landu genituen, orain arte egindakoaren erreferentzia izateko. Azkenik, Iruñerriako testuinguruan ikastetxeek erabiltzen dituzten programa eta teknika nagusien[30] hausnarketa egin da[31], teknika baliagarrienak eta gure testuinguruan garrantzi handia dutenak zein diren ezagutzeko helburuarekin.

Gure programa, 3 zutabeetan oinarrituko da:

Lehenengo zutabea; gaitasun sozialak:

Gaitasun sozialak, teknikoki asertibitatea bezala ezagutzen duguna, nahi dena era egokian eskatzean eta nahi ez dena era egokian baita ukatzean, gainontzekoak kaltetu gabe gure helburuak lortzean, sentimenduak eta pentsamenduak adierazten jakitean, aukeraketa pertsonalak egitean eta bakoitza bere buruarekin ongi sentitzean datza.

Gaitasun sozialen garapenerako teknikak onartzen duten moduan, jarrera antisozialak eta bortitzak garatzen dituzten adingabekoak, familian, eskolan eta lagunartean ematen diren aldaketei aurre egiteko kognizioaren eta erlazio interpertsonalen entrenamendu faltagatik izaten dira.

[30] ikus *Izan Proposamena, pertsona izaten hezteko zortzi irakaskuntza* (2010). Hemen eskuragarri: http://www.izanproposamena.org/index.php/eu/aurkezpena

[31] Ikastetxeak eskatuta, ezin izan dugu aztertutako programa guztien izendapena egin.

Zutabearen helburua:

Emozionalki pertsona osasuntsuak izatea, sentimenduak azaleratzen jakitea, gainontzekoen emozioekin konektatzen jakitea, arazoen konponketa bideratzen jakitea, arrazonamendua erabiltzea, erantzukizunaren kontzeptua izatea, auto-kontrola garatzea eta gainontzekoekin erlazionatzeko estrategiak eta abileziak garatzea du helburu.

Bigarren zutabea; guraso eta komunitatearen parte hartzea:

Balio moralak eta jarrera bideratuak irakastearen arduradun nagusia familia dela kontsideratzen da. Familiak haren erantzukizuna betetzen ez duenean, haurrek jarrera antisozialak garatzeko arrisku handiagoa dute. Gurasoek eskolan duten parte hartzea areagotzean, erantzukizun handiagoa bultzatu eta zenbait jarraibide jasoko dituzte, haurraren garapen prozesuan eragina izango dutenak. Prozesu hau are osatuagoa izateko, komunitatearen parte-hartzea beharrezkoa ikusten dugu, gure programaren kasuan polizia izango da gehien barneratuko den instituzioa, baina beste askoren parte-hartzea bultzatu daiteke ere.

Zutabearen helburua:

Informazio trukea, hitzaldiak, ikastaro tailerrak eta parte hartze konpromisoa bultzatzearen eta areagotzearen ondorioz, familia, komunitatearen eta eskolaren arteko erlazioa indartzea eta laguntzea.

Hirugarren zutabea; bitartekaritza programa:

Bitartekaritza, hezkuntzan eragina duen klima positiboa sortzen, errespetu, enpatia eta kooperazio jarrerak garatzen, araudia ulertzen eta pertsonarteko komunikazioa laguntzen duen teknika da. Gaur egun, bitartekotasun teknika hauen artean emaitza aberasgarrienak lortzen ari dituztenak, ikasleak haien arteko gatazkak konpontzeko bitarteko bezala hartzen dituztenak dira. Ikasleak bitartekari moduan jokatzen dutenean, elkartasun handiagoa sortzen da autoritate figura bat sartzen denean baino. Gainera, ikasleak haien gaitasunen eta bizitzaren kontrol handiagoa izatea lortzen da, haiek baitira haien arazoak maneiatuko dituztenak.

Zutabearen helburua:

Gatazkak era baketsuan konpontzeko gaitasuna garatzea, partaidetzan, lankidetzan eta elkarrizketaren kontzeptuetan oinarrituz.

3.1.3 Norentzat bideratua dago programa?

Programa honen garapena egiteko abiapuntutzat hartutako zonaldea Nafarroa eta zehazki ere Iruñea izan bada ere, haurrak balore positiboak garatzea eta haren hezkuntza integrala helburutzat duen edozein pertsona edo instituziorendako erabilgarria izan daitekeen proposamena iruditzen zaigu.

Argitu beharra dago proposamen hau Nafarroako adingabekoen delinkuentzia tasetan oinarrituta sortu egin dela, beraz ez dugu ziurtasunik delinkuentzia datu ezberdinak dituzten zonalde edo herrialdeetan aplikapena onuragarria eta posiblea izango litzatekeen edo ez. Horregatik, programaren erabilpenarekin hasi baino lehen, testuinguruko egoeraren analisia egitea gomendatzen dugu, testuinguru batetik bestera beharrezkoak diren moldaketak egitearren.

3.1.4 Helburu orokorra

Haurrek jarrera desbideratuak garatzea ekidingo duten beharrezko abilezia sozialak, familiarekin erlazioa eta gatazkak era baketsuan konpontzea ahalbidetuko dien bezalako gaitasunak garatzea.

3.1.5 Helburu espezifikoak

Programa oinarrituko den 3 zutabeekin erlazionatuz, hauek izango dira programan zehar garatzea espero dugun helburu espezifikoak:

Taula 5. Lanaren zutabeetan zehar garatzea espero diren helburu espezifikoak

1. ZUTABEA	2. ZUTABEA	3. ZUTABEA
Talde baten partaide gisa jokatzen jakitea	Familia eta eskola testuinguruetan onartua eta balioetsia izatearen sentimendua garatzea	Gainontzekoen premiak aitortzea eta erantzutea
Komunikazio trebetasunak; igortzen eta entzuten jakin	Familia harremanak sendotzea	Gatazka bateko ageriko zein ezkutuko arazoak identifikatzen jakitea
Laguntza eskaintzen eta eskatzen jakitea	Familia eta komunitateak eskolan duen inplikazioa areagotzea	Arau sozialen barneratzea
Esker onekoa izatea	Eskola komunitatea osatzen duten partaideen lankidetza sustatzea	Lankidetza eta elkarrizketa gaitasunak garatzea
Norbanakoaren ezagutza		Biolentzia jokaerak ekiditen ikastea
Autonomiaren garapena		Asertibitatearen garapena
Auto-estimaren garapena		Gatazken positibotasunaz ohartaraztea
Emozioen adierazpena garatzea		Emozioak kontrolatzen jakitea
Asertibitatearen garapena		Komunikazio trebetasunak hobetzea

3.1.6 Programaren denboralizazioa eta faseak

Salvador eta Martinez-ek (1997, 97) egindako zehaztapenean oinarrituz[32], gure programa Lehen Hezkuntza etaparako bideratuta egongo da. Lehen Hezkuntzak zikloetan duen banaketa eta gure proposamenaren hiru zutabeak probestuz, gure programa hiru faseetan banatuko da, fase hauetako bakoitzean programaren zutabe bat garatuz. Horrela, LH-ko lehenengo eta bigarren mailetan (lehenengo zikloa), gaitasun sozialak garatzeko teknikak landu egingo dira, hirugarren eta laugarren mailetan (bigarren zikloa), gurasoen eta komunitatearen parte-hartzea sustatuko da eta azkenik, bosgarren eta seigarren mailetan (hirugarren zikloa), bitartekotasun programa garatuko da.

[32] "Prebentzio programak denboran zehar jarraitasuna izan behar dute, eskola mailetan zehar haren iraunkortasuna bermatuz, betiere haurraren garapen ebolutiboari arreta jarriz".

Taula 6. Lehen Hezkuntzako mailetan zehar garatuko diren proposamenak

1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila	6. maila
Pertsonak izaten ikasten	Pertsonak izaten ikasten	Familiaren parte-hartzea	Komunitatearen parte-hartzea	Bitartekaritza programaren sarrera	Bitartekaritza programa

Antolamendu honen arrazoimenean sakontzea egokia iruditzen zaigu:

Lehenengo zikloan pertsonak izatearen garrantzian oinarritzen gara, gaitasun sozialak, asertibitatea, auto-estima, arazoak konpontzeko estrategiak, kooperazioa, auto-kontrola, eta horrelako kontzeptuen garapenean zentratuz, hurrengo zikloetan zehar erabiliko ditugun tekniketan ere garatzen jarraituko direnak.

Bigarren zikloan, behin pertsonak eratzearen prozesua aurreratua dagoela, familiaren eta komunitatearen parte-hartzea sustatuko dugu, familiak eta haurrak erlazio positiboa izatearen garrantzian eta zenbait jokabide jarraitzearen garrantzia azpimarratuz.

Hirugarren zikloan, bitartekotasunaren bidez arazoak konpontzeko teknika aurkeztuko zaie ikasleei. Azkeneko zikloan egiten da txertaketa hau, haurren heldutasuna eta garapena kontuan hartuz, aurrera eramateko gaitasun handiagoak dituztela kontsideratzen dugulako, are gehiago 1. eta 2. zikloetan aurrera eraman ditugun prozesuekin. 5. maila, programaren aurkezpena egiteko eta ikasleak prestatzeko erabiliko da eta 6. maila, bitartekaritza lana aurrera eramateko.

3.2 Programaren oinarriak eraikitzen

Programa ikastetxean txertatzeko orduan, zenbait izango dira aurretik eman beharreko pausuak:

Lehenik eta behin, ikastetxeko organo ezberdinen artean programaren baliotasuna eztabaidatuko da, programa aurrera eramatea edo ez gomendagarria ikusten den erabakitzeko. Lehenengo pausu hau ezinbestekoa da, izan ere, programan parte

hartuko duten partaide guztien konpromisoa eta motibazioa beharrezkoa izango programa era eraginkorrean aurrera ateratzeko, are gehiago programa berria izanik.

Behin programaren txertapena adostu egin dela, irakasleek beharrezko materialak jasoko dituzte (ikus A gehigarria). Gure proposamena, irakasleek programa osoaren deskripzioa eta maila bakoitzean egitea planteatuta dagoena jasotzea izango litzateke, zutabe bakoitzean garatuko denaren inguruko informazioa izateko eta horrela haien zutabea ahalik eta modu eraginkorrenean garatzeko. Hala ere, programa osoaren azterketa egitea pisutsua ikusten bada, bakoitzari dagokion zutabean landu beharrekoa banatzearekin aski izango da.

Bigarren, familiei txertatuko den programaren berri ematea izango da. Horretarako baliagarria izango zaigu kurtso hasieran aurrera eramaten den irakasle eta gurasoen arteko elkarrizketa, beraz, ezinbestekoa izango da programaren funtzionamendua eta materialak bilera hori baino lehenago prestatua izatea. Gainera, programa parte-hartzaile baten aurrean gaudela azalduko zaie, haien parte-hartze aktiboaren garrantzia azpimarratuz.

Hirugarrena, programa ikasleei aurkeztea izango da. Aurkezpen hau motibagarria eta dinamikoa izatea beharrezkoa izango zaigu haurrek gogoekin hartzeko gure proposamena, bestela, “eskolaren beste zerbait” bezala ikusiko dute eta horrek programak duen interes guztia galtzea eragingo du. Azaldu beharko diegu programa honen protagonistak haiek direla eta haien parte-hartzea eta gogoak beharrezkoak izango direla LHko mailetan zehar programa era egokian funtzionatzeko. Hala ere, programa bakoitzaren zutabe berri bat lantzen hasiko garen momentuan, egingo dugunaren informazio osatuagoa emango zaie.

Orokorrean hau izango da programaren azalpena ematerakoan parte hartzaileei emango zaien definizioa: “Pertsonak garen heinean, ezberdinak gara ikuspuntu askotatik begiratuta; hala nola, adina, sexua, ezaugarri fisikoak, orientazio sexuala, nortasuna, zaletasunak, pentsatzeko modua, kultura, etabar. Hauetako bakoitza, gainontzekoekin erlazionatzeko dugun modua determinatuko du gure bizitzan zehar.

Erlazio hauek guztientzat onuragarriak izateko eta gizartean elkarbizitzen ahalbidetuko diguten estrategia eta tekniken garapenean oinarrituriko programa da hau."

Azalduko zaie baita ere, programa berri baten aurrean gaudela eta zenbait irizpide ezarrita badaude ere, programaren izaeran esku hartu nahi duen edonoren ahotsa entzungo dela. Horrela izanda, programaren garapenean eta hobekuntzan parte hartu nahi duenak, hala nola, aspektuak hobetzeko gomendioak emanez, teknika berritzaileak proposatuz, egiteko moduaren aldaerak proposatuz edo dena delakoa, egiteko aukera izango du ikastetxeak zabalduko duen helbide elektroniko baten bidez.

Hurrengo pausua, programak ekarriko dituen onurak azaltzea izango da:

Taula 7. *Proposamenaren onurak*

	PROGRAMAREN ONURAK
Irakasleentzat	Ikasleen portaeran kudeaketa aktiboa izateko formakuntza gehigarria; hala nola, aginduak eta itxaropenak modu argiago batean komunikatu edo portaera positiboak nola saritu. Irakaskuntza elkarreragilea eta kooperatiboa. Haurrei komunikazio abileziak, erabakiak hartzea, negoziazio metodoak, gatazkak nola konpondu edo ezetz esateko gaitasuna irakastean sakontzea.
Gurasoentzat	Seme-alaben errendimendu akademikoan laguntzea. Jarrera egokiak edo ezegokiak identifikatzen ikasi. Ikasketetarako ingurune egokia sortzea. Gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetu. Seme-alaben jarrera egokiak nola saritu ikasi. Eskolarekin komunikazioa hobetzeko formazioa.
Ikasleentzat	Bakoitzaren ezagupena. Pertsona bezala haztea. Komunikazio eraginkorra. Erabakiak hartzeko eta haiekin konprometitzeko gaitasuna. Emozioen kudeaketa egokia. Enpatiaren garapena. Gatazken ebazpen kolaboratiboa.

Amaitzeko, aurre-ebaluazio fitxa (ikus B, C eta D gehigarriak) bat pasako zaie programaren partaideei haien programaren inguruko itxaropenak ezagutzeko. Honi esker, parte hartzaileak programarekin bat egingo dute, programaren parte sentituz eta kontuan hartzen zaiela ikusiz.

3.3 Programaren zutabeak eraikitzen

Alderdi honetan zehar, gure programa osatzen duten 3 zutabeen garapena nolakoa izango den ikusten joango gara. Zutabe bakoitzean, zikloa osatzen duten bi mailetan zehar landuko diren kontzeptuen azalpena emango da eta kontzeptu horien garapena lortzeko beharrezko teknika eta baliabideetan sakonduko da.

3.3.1 Lehenengo zutabea: pertsonak eratzen; jarrera arduratsuak

Zer da erantzukizuna? Erantzukizuna, bakoitzaren eta gainontzekoen onuraren bilaketan gure ekintza eta erabakien ondorioak onartzearen gaitasunean datza. Hau, hezkuntza prozesuan zehar bereganatzen joaten gara, helduaren imitazioagatik eta onartze sozialagatik. Onartze sozial honengatik, indibiduo bezala, osatuak sentitzen gara, gure auto-estima garatzen du eta pertsona bezala hezten gara.

Haurrei erabaki propioak hartzea ahalbidetzen diegun heinean, zenbait izango dira bete beharko ditugun irizpideak: amaieraraino eraman beharko dituzte erabaki horiek, ez dira onartuko jarrera kapritxosoak, okertzean ondorioak hauteman beharko ditu (nekea, aspertzea, ondoeza edo haserrea), haren erabakien erantzulea dela ikusi beharko du. Horrela, haurra erreflexiboagoa izaten eta erabakien aspektu positibo zein negatiboak kontuan izaten heziko dugu.

Haur batetik bestera aldatu egiten badira ere, hezkuntza prozesua osatzen duten garapen etapak kontuan hartuz, badira haur guztiek erantzukizunaren garapenean garatu beharreko gaitasun orokor batzuk.

Taula 8. Erantzukizuna garatzen

ERANTZUKIZUNAREN GARAPENEAN GARATU BEHARREKO GAITASUNAK
Konpromisoa
Pertseberantzia
Erabakiak hartzea
Autonomia
Segurtasuna
Bakoitzarenganako exijentzia maila altua

Gure lehenengo zutabe hau Lehen Hezkuntzako 1.go mailan garatu egingo denez, zehazki adin tarte horretan haurrek garatu beharreko gaitasunetan zentratu egingo gara.

Taula 9. 6-7 urte bitarteko erantzukizunaren adierazleak

ERANTZUKIZUNAREN ADIERAZLEAK (6-7 URTE)
Kasu bakoitzean beharrezko laguntzarekin, jarduera bat aurrera eramateko materialak prestatu behar ditu.
Eskola, etxea, lagunen etxeak, senide-tartekoen etxeak… bezalako helbideetara bakarrik joateko kontrola izan behar du.
Astero diru kantitate bat eman ahal zaio eta bera izango da kudeatzearen erantzulea, jakinez, bukatzen zaionean hurrengo asteraino itxoin beharko duela.
Helduen arauak eta ohiturak hartzen ditu “onaren” eta “txarraren” identifikazioan.
Agurrak eta eskerrak bezalako ohiturak ikasten ditu. Justiziaren ideia bereganatzen hasten da eta arau moralak ulertzen ditu.

Gure ikasleek erantzukizunaren aurrean duten egoera aztertzeko, ebaluaketa fitxa (ikus E gehigarria) bat prestatu egin dugu, haien egoera ezagutzeko helburuarekin, haiek zuzendu beharko dutena emango diegun zuzenketa fitxaren (ikus F gehigarria) bidez.

Erantzukizunaren inguruan lan egiteko metodologiak, 6-7 urte adin tartean garatuak izan beharko dituzten adierazleekin bat egin beharko dute. Bi izan dira guk proposatutako jarduerak (ikus G eta H gehigarriak).

3.3.2 Lehenengo zutabea: pertsonak eratzen; gaitasun sozialak

Hezkuntza sozial eta emozionala, emozioak hautemateko eta zuzentzeko, erabaki arduratsuak hartzeko eta erlazio positiboak garatzeko prozesua da (Elías et al., 1999).

Prozesu honetan zehar, ikasleak lengoai asertiboa erabiltzen ikasten dute. Horri esker, haien sentimenduak entzunak izaten, erabakiak hartu aurretik hausnartzen eta ikasleen artean sortzen diren gatazkak naturaltasunez hartzen ikasten dute.

Gainontzekoekin elkarbizitzen garen heinean, helburuak, baloreak eta arauak partekatzen ditugu, baita gatazkak ere. Horrela izanda, ezinbestekoa da pertsona bakoitzaren izaera errespetatzen jakitea, hitzaren balioa kontuan hartzea, bakoitzak bere ideiak defendatzearen aukera izatea, azken finean errespetuan oinarritutako bizikidetasuna aurrera eramaten jakitea, gatazkak modu eraginkorrean eta baketsuan konpondu ahal izateko.

Taula 10. Haurrak garatzea espero den gaitasun sozialak

HAURRAK GARATZEA ESPERO DITUGUN GAITASUN SOZIALAK
Bizikidetasuna oinarritzen den alderdiak ezagutu; hala nola, pertsonen arteko berdintasuna, guztien onuraren bilaketa, justizia, enpatia, aniztasunaren errespetua, etabar.
Gure gizartean ezarritako arau eta portaerak ezagutzea, onartzea eta horietan oinarrituta jokatzen ikastea.
Kritikotasunean heztea, justizia sozialaren alde egingo duen bizikidetza baketsua aurrera eramateko.
Bizikidetza eragozten duten jarreren ondorioen inguruan hausnartzea.

Kurtso honetan zehar, gainontzekoekin erlazionatzeko era hobetzen saiatuko gara, gure jarrera eta gauzak adierazteko modua gero eta egokiagoa izanda, gatazkak eta gaizki-ulertuak ekiditeko helburuarekin. Horretarako zenbait tekniken garapenean lan egingo dugu:

1) ENTZUTEA
Gainontzekoak esan nahi dutenaren berri izateko ezinbestekoa den trebetasuna. Honi esker, igorleak esaten duen inguruko interesa eta errespetua adierazten ikasiko dugu, beste pertsonak gure interesa duela jakiteko.
Lantzeko teknikak
Hitz egiten ari den pertsonari aurpegira begiratu, begien arteko kontaktua ezarriz. Elkarrizketaren inguruko interesa azaldu. Laguntza eskatzen dizun heinean, zure ikuspuntua adierazi, zure jarrera zein izango litzateke kontatu, baina betiere ikuspuntu objektibo bat izaten saiatu beharko gara, bestea izango da haren erabakien erantzukizuna izango duenak.

2) KOMUNIKATZEA
Aho gaitasunez eta gorputz gaitasunez baliatuta gainontzekoekin trukatze positiboa izateko ezinbesteko trebetasuna.
Lantzeko teknikak
Edukazioz agurtu. Txandaka hitz egin, inoiz ez batera. Besteak esaten duena aktiboki entzun. Jarrera egokia azalerazi. Amaitzean agurtu baita.

3) ESKERRAK EMAN
Gainontzekoak guregatik zerbait egiten dutenean garrantzitsua da eskerrak ematen jakitea. Horrela, egindakoarekin ongi sentitzen garela eta egindakoa gustatu zaigula jakingo du. Esker onekoak garenean, gainontzekoak prest egongo dira gu laguntzeko.
Lantzeko teknikak
Eskerrak eman naturaltasunez, modu zintzo batean eta laguntasunez. Eskerrak ematearen zergatia argi gera dadila. Beste pertsonaren izena erabiltzea komenigarria da.

4) LAGUNTZA ESKATZEA
Gainontzekoen laguntza behar dugun egoeren aurrean jokatzen ikasteko ezinbesteko trebetasuna. Honi esker, gainontzekoek behar duguna ezagutuko dute, arazoei aurre egiteko laguntza izango dugu eta ingurukoekin erlazio aberatsagoak izatea lortuko dugu.
Lantzeko teknikak
Zein da arazoa? Zuk bakarrik konpontzeko gaitasuna al duzu? Nor da arazoa konpontzen lagunduko dizun pertsonarik aproposena? Laguntza eskatzerako orduan, edukazioz eta modu onean egin Laguntza eskatzearen arrazoiak azaltzea posiblea baduzu, aurrera! Eskertasuna adierazi

5) BARKAMENA ESKATU
Zerbait gaizki egin dugula onartu eta gainontzekoen aurrean adierazten jakiteko ezinbesteko gaitasuna. Gure akatsak aitortzen jakin behar dugu. Gainera, barkamena garaiz eskatzen badugu, gainontzekoak haserretzea saihestu daiteke. Barkamena eskatzea ez da ahultasunaren seinale, baizik eta ausartasunarena. Kontuan izan behar dugu barkamena eskatzea ez dela soilik “barkatu” esatea, gaizki egin dugunaren inguruan hausnarketa bat egon behar da, zergatik egin dugu, nor kaltetu dugu gure erabakiarekin, zergatik ikusten dugu gaizki egin dugula, etabar. Hausnarketa egin eta gero barkamena eskatzea beharrezkoa ikusten badugu, eta berriro egingo ez dugularen ziurtasuna dugun momentuan, orduan eskatuko dugu barkamena.
Lantzeko teknikak
Zer egin dugu barkamena eskatu behar izateko? Nor kaltetu dugu? Barkamena nola eskatuko diogu pentsatu Aurkeztu zure burua eragindako kalteak konpontzeko

6) AUTO-KONTROLA
Egoera baten aurrean jokaera zehatz bat hartu aurretik gure burua aztertzeko eta lasaitzeko gaitasuna. Hartzen ditugun erabakiak modu arrazoituan izatea eta etorkizunean ez damutzea ekarriko du. Auto-kontrola, burutik igarotzen zaigun lehenengo gauza ez egiteko erabiltzen dugu, gauzen inguruan zeozer hausnartzeko. Auto-kontrolaren garen goiztiarrak, portaera bortitzak eta biolentoak ekidin ditzazke etorkizunean. Kontuan izan behar dugu auto-kontrola ez dela esaten diguten guztia onartzea, baizik eta era bortitzean ez erantzutea, eraginkorragoa den bat bilatuz.
Lantzeko teknikak
Ezinegona sortzen ari digun egoera identifikatu. Zure egoera pertsonala identifikatzen saiatu (haserrea, tentsioa, urduritasuna…). Lasaitasuna berrezartzeko metodoa bilatu.

7) NEGOZIATU
Bi pertsonek edo gehiagok gai baten inguruan iritzi bera ez dutenean akordio komun batetara iristea ahalbidetuko digun gaitasuna da. Trebetasun honek, gatazkak konpontzen lagunduko digu. Kontuan hartu behar dugu, gai baten inguruan negoziatzen ari garenean, gainontzekoen iritziak eta sentimenduak kontuan izan behar ditugula, ez da guk nahi duguna indarrez inposatzea baina ezta ere gainontzekoak nahi dutena egitea ere, bi aldeen arteko erabaki bat izan behar da.
Lantzeko teknikak
Gaiaren inguruko iritzi desberdinak identifikatu. Beste pertsonari gaiaren inguruan duzun iritzia azalerazi eta bere iritzia eskatu. Bere iritziaren kontra argudioak azaleratu. Bien iritziak kontuan hartzen dituen konponbidea proposatu.

3.3.3 Bigarren zutabea: familiaren parte-hartzea

Ikerketa lan honetan azpimarratzen joan garen moduan, familiek haurren hezkuntza prozesuan eta jarrera bideratuen garapenean duten garrantzia erabatekoa da (ikus *1.4.1 Familiaren eragin zuzena* atala). Izan ere, eskolak eta familiak haurrekin era egokian erlazionatzeko modua aurkitzen badugu eta diziplina arazoak konpontzeko estrategia positiboak planteatzen baditugu, haurrak konpetentzia sozialak eta emozionalak garatzeko modua aurki dezakegu eta horrela haien jarrera desbideratuak murriztu.

Iruñeko ikastetxeen egoera aztertu eta gero gainera, ondorio batetara iritsi gara: ikastetxeek familien parte-hartzea sustatzeko zenbait baliabide dituztela ere, agian ez egokienak edo erakargarrienak, familiak ikastetxeetan duten inplikazioa nahiko baxua izaten da. Horrela, programaren bigarren zutabe honetan erlazio hauek sakonduko dituen zenbait proposamen eta teknika ezarriko ditugu, familien eta eskolen arteko erlazioak areagotuko direlakoan.

Tradizionalki, familiek eskolan duten parte hartzeko bideak (eskola batzordea esaterako) sendotu ez ezik, parte hartze hau sustatuko duten teknika berriak beharrezkoak dira. Horregatik, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan zehar familiak eskolan duen parte-hartzea sustatzeko proposamen bat planteatuko dugu, familien eta ikasleekin batera:

GIPH: gurasoentzako ikasgela parte-hartzailea. Talde hau, ikastetxeko zuzendaritza taldeak eta ikasgela bakoitzeko gurasoen bi ordezkarik osatuko dute. Helburua, ahalik eta guraso gehienei ahotsa ematea da, interes desberdinak ezagutzeko.

Hauek dira betetzen dituzten funtzioak:

- Klaseko ikasle taldearen iradokizunak eta balorapenak biltzea.
- Klaseko funtzionamenduaren jarraipena egiteko, tutorearekin zein zuzendaritza taldearekin elkartu hiruhilekoan behin.
- Ikasleen familien arteko bizikidetza klima sustatzea.
- Hezkuntza kalitatea hobetzeko bideratutako proposamenak sortu.
- Familien formakuntzan eragiteko gai interesgarriak proposatu.

- Familia-eskola-ikasleen arteko erlazioa sustatuko duten ekintzak proposatu; hala nola, inauteriak, aste kulturala, azoka solidarioa, eskola mendi taldea, etabar.

Gainera, familia eta haurraren arteko komunikazioa hobetzeko helburuarekin, formakuntza saio bat proposatuko egingo da, non biak parte hartuko duten, bai ikasleek, bai familiek. Familia guztiekin batera lan egitea suposatuko lituzkeen zailtasunak eta familiek saiora joateko izango dituzten arazoak kontuan hartuz, 3 alditan saioa errepikatzea gomendatzen da. Horrela, familiak saio horietan zehar banatuko ditugu haien beharren arabera eta askoz errazagoa izango da baita saioa aurrera ateratzea.

Saio honetan, familien eta haurren kezkak bilduko dira eta horietan oinarrituta, hartu beharreko jarraibide egokienak zeintzuk diren eta arazoei irtenbideak bilatzen saiatuko gara. Hauek dira lantzea ezinbestekotzat hartzen ditugun zenbait puntu:

- Etxean lan egiteko espazio egokia ba al dute?
- Zenbat denbora igarotzen dugu egunean gure gauzez hitz egiten?
- Elkarrekin denbora gehiago igarotzea gustatuko litzaizuke?
- Zeintzuk dira zure proposamenak hau aurrera eramateko?
- Nola kudeatzen ditut gustuko ez ditudan jarrerak? (familientzat)
- Nola saritzen ditut gustuko ditudan jarrerak? (familientzat)

Azkenik, ikasturtearen amaieran lortzea espero diren helburu nagusiak adieraziko ditugu:

Familietan emaitzak:

- Hezkuntza positiboaren inguruko ideia argiagoak.
- Seme-alabarekin komunikazioaren hobekuntza.
- Eskolarekin elkarlana onuragarriagoa eta handiagoa.
- Eskolarengan konfiantza handitzea.

Haurretan emaitzak:

- Jarrera desegokien hobekuntza.

- Klasean parte-hartzearen gora egitea.
- Eskola errendimenduaren gora egitea.
- Gurasoekin komunikazioa hobetzea.

Irakaslerian emaitzak:

- Familiarekin erlazioa hobetzea.
- Klaseko dinamika positiboagoak.
- Ekintzak aurrera eramaterako orduan familien laguntza eta konfiantza hobetzea.

3.3.4 Bigarren zutabea: komunitatearen parte-hartzea

Lehen Hezkuntzako laugarren mailan komunitateak eskolarekin batera lan egitearen garrantzian zentratuko gara. Gure kasuan, erlazio hau poliziarekin izango da, delinkuentziaren prebentzioan egiten duten lana aproposa ikusten dugulako eskola testuinguruan txertatzeko.

Atal honen garapena egiteko, Iruñeko Udaltzaingoak eskaintzen duen hitzaldi programan oinarrituko gara.

Poliziaren esanetan, Lehen Hezkuntzan ematen dituzten hitzaldi gehienak eskola-jazarpenarekin erlazionatutakoak izaten dira, beraz ikastetxearen testuingurua beste baten bat garatzera behartzen ez badigu, honen garatzea egitea gomendatuko genuke.

Hitzaldiak aurrera eramateko denboralizazio adibide bat (ikastetxe bakoitzak haren beharretara hobe moldatzen den denboralizazioa egiteko aukera izango du):

	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina
1. astea										
2. astea										
3. astea										
4. astea										

Taula 11. Udaltzaingoaren hitzaldien programazio posiblea

Urria, azaroa eta abendua hilabete aproposak ikusten ditugu ikastetxearen egoeraren aurreikuspena egiteko. Ezohikoa den edozer ez dagoen bitartean eta Udaltzaingoaren zerbitzuak eskolako ikasturteko programan txertatzea ontzat hartzen den momentuan, poliziarekin beharrezko kontaktua egingo da eta hitzaldiak finkatzeko bilera antolatuko da, ikastetxearen zuzendaritza taldearekin, irakasle taldearekin eta guraso elkartearekin batera. Hitzaldiekin hasi baino lehen, poliziak tutoreekin bilera bat izango dute, klasean eman diren kasu praktikoen inguruan informazioa jasotzeko eta kasu horietatik abiatuta gaian sakontzeko askoz.

Urtarrilean hitzaldiekin hasiko gara. Hitzaldiak lau saioetan zeha banatuko ditugu, eta hitzaldi bakoitzean lantzen denari buruz klasean hausnartzeko eta sakontzeko denbora izateko ideiarekin, hilabetean behin izatea proposatzen dugu. Hitzaldirik gabeko aste hauetan zehar, tutoreak material desberdinak prestatuko ditu klasean lantzeko.

Azkenik, programarekin bukatu eta gero, ebaluazioa egingo da. Udaltzaingoak bere aldetik egiten du programaren ebaluazio hau, haien ondorioak ateratzen dituztelarik. Ikastetxeen aldetik, ikasleen eta irakasleen iritzian oinarrituko den ebaluazioa egingo da, programaren onurak, jarraikortasuna eta moldatu beharrekoak ezagutzeko.

3.3.5 Hirugarren zutabea: bitartekaritza programa

Gatazkak gure bizitzan zehar laguntzen digute, erlazioen parte dira, pertsona guztietan dute eragina, adina dena delakoa izanda ere. Ikaskuntza iturri dira gainera, eta maneiatzen, konpontzen, eta etekina ateratzen jakitea gaitasun sozialen parte da. Normalean, gatazka baten aurrean aurkitzen garenean, epaitzeko, gure iritzia emateko eta konponbide posibleak emateko jarrera hartzen dugu. Hori ordea ez da hartu beharko genukeen bidea, horrela ez baitugu etekinik ateratzen eta soilik alde baten onurarako izaten delako konponbidea, bestea gutxietsiz. Horrela izanda, beharrezkoa da ulertzea gizakiok gatazkekin bizi garela eta horien aurrean hartu beharreko jarrerak, baketsuak, analisian oinarrituak, neutralak eta parte hartzaile guztiek akordio batetara iristekoak izan behar direla.

